



KOSTUEN EGITURA

Funtzionamendurako beharrezkoak diren gastu guztiak sartzen dira, hala nola langileak, eragiketak, proiektuak eta administrazioa. Helburua da baliabideak erakundearen helburu sozialak betetzeko eraginkortasunez erabiltzen direla bermatzea.

Kostu finkoak konstante irauten dutenak dira, prozesatutako edo banatutako arroparen bolumena edozein dela ere. Gure enpresan, hauek dira kostu finko nagusiak:

- Alokairua: Arropa gordetzeko eta banatzeko nabea erabiltzearekin lotutako gastuak.
- Langileen soldata: Banaketaren kudeaketaz, logistikaz eta kontrolaz arduratzen diren pertsonen ordainsaria barne hartzen du.
- Lokala eta aplikazioa mantentzea: Espazioaren egoera optimoa eta kudeaketa digitaleko sistema kontserbatzeko gastu errepikariak.
- Oinarrizko zerbitzuak: Eguneroko eragiketetarako beharrezkoak diren elektrizitatearen, Interneteko konexioaren eta telefonoaren kostuak.
- Garbiketa-zerbitzua: Nabea baldintza higieniko egokietan eduki.
- Asegurua: Arriskuen aurkako estaldura azpiegitura, biltegiaritutako materiala eta langileak babesteko.

Kostu horiek jarduera-bolumenaren arabera aldatzen dira, hau da, prozesatutako eta banatutako arropa-kopuruaren arabera. Gure enpresan, hauek dira kostu aldakor nagusiak:

- Enbalatzeko materiala: Poltsak, kaxak eta arropa sailkatu eta banatzeko beharrezkoak diren beste elementu batzuk barne hartzen ditu.
- Garbiketa-zerbitzua (partziala): jarduera-bolumena nabarmen handituz gero, garbiketa-gastuak handitu litezke.

Prozesatutako arropa-kopurua handitzeak unitateko batez besteko kostua murrizten duenean lortzen dira eskala-ekonomiak. Gure kasuan, onura hauek izan ditzakegu:

- Materialen unitateko kostua murriztea: Poltsak edo enbalajeak kopuru handitan erostean, bolumenagatik deskontuak lor genitzake.

Hedapen-ekonomiak gure jardueren irismena dibertsifikatzean edo zabaltzean sortzen dira, lehendik dauden baliabideak aprobetxatuz inpaktu sozial handiagoa sortzeko. Adibide aplikagarriak:



- Zerbitzuak zabaltzea: Funtsezko beste produktu batzuen dohaintzak sartzea, hala nola mantak edo oinetakoak, kostu operatiboak nabarmen handitu beharrik gabe.
- Lankidetzak instituzionalak: Aliantzak ezartzea gure baliabideak (espazioa, garraioa edo langileak) partekatzen dituzten beste erakunde solidario batzuekin.
- Lurralde-hedadura: Beste auzo edo udalerri batzuetan bilketa-guneak irekitzea, kudeaketa zentralizatuko sare bera erabiliz.

Hasierako inbertsioan haibat gastu sartuak genituzke, hala nola, lokala, notaritza gastuak, enpresaren erregistroa, hasierako kontratuak eta markaren, logoaren eta izenaren kostuak.

